



ANDOAINGO UDALA



Auzoz auzoko erronda berria egingo du udal gobernua irailean

Opor giroko egunak igaro ostean, ekin diogu ikasturte berriari. Duela gutxi igaro genuen agintaldiaren erdigunea. Gure balorazioa egiteko aprobeztatu genuen data hura, besteak beste, hartutako konpromisoen inguruko errepassoa egiteko. Gogoratu behar dugu 50 neurri sorta garatzeko konpromisoa hartu genuela agintaldi hasieran; denetariko konpromisoak hartu genituen, horietako batzuk epe laburrean garatzekoak eta beste batzuk luzarogoa. Baina esan beharra dugu, agintaldiaren erdira iritsita horietako asko gauzatuak direla, beraz egindakoaren balorazioa positiboa da.

Nolanahi ere, esan bezala, horietako batzuk egitekoen zerrendan ditugu oraindik, eta nahiz eta zerrenda horretan agertu ez, badira beste eginbeharreko batzuk ere. Azken hauetan, auzoetatik bideratu izan dizkiguten behar edo nahiak aurkitzen dira.

Bada, beharrezkoa ikusten dugu herritarrekin hartu-emanetan jarraitzea egindakoak zertan diren eta, batez ere, eginbeharrekoetan zein asmo ditugun azaltzeko.

Horregatik, irailean, beste behin ere, auzoz auzo bisitaldiak egiteko asmoa daukagu. Bisita hauetan, gure aldetik, hiru gai nagusi izango ditugu mintzagai: Udaleko egoera ekonomikoaren berri ematea, 50 neurrien betetze mailaren azalpena eta, azkenik, aurrera begira ditugun erronken aipamena. Nola ez, auzoko beharren inguruan ere jardungo gara auzotarrekin.

Bisitaldi hauek irailaren 14an hasi eta 27ra arte luzatuko dira. Auzoz auzoko edizio berri honetan, gainera, baditugu zenbait nobedade: batetik, espazio itxietatik espazio irekietara egingo dugu jauzia, bilerak kalean eginez (betiere, eguraldiak uzten badigu). Bestalde, estreinekoz eta espreski, bilera egingo dugu Alejandro Calongeko auzotarrekin euren beharrak gertutik ezagutzeko. Orain arte Bazkardo eta Kale Txikiko auzotarrekin batera elkartu izan gara eurekin, baina auzoaren berezitasunak ikusirik, bertara jo eta bilera bertan egitea erabaki dugu.

Hauek dira hitzorduak:

-Irailak 14, osteguna, BURUNTZA-LEIZOTZ, 19:00etan
San Martin aztarnategian (eguraldi txarra egingo balu Ontza elkartean)

-Irailak 18, astelehena, GOIBURU, 19:00etan
Frontoian (eguraldi txarra egingo balu San Esteban etxean)

-Irailak 19, asteartea, ZUMEA-ERDIGUNEA-OLAGAIN, 19:00etan
Zumea plazan (eguraldi txarrarekin Zumeatarra elkartean)

-Irailak 20, asteazkena, BAZKARDO-KALE TXIKI, 19:00etan
Bazkardoko frontoian (eguraldi txarrarekin Aita Larramendi ikastolaren
Bazkardoko eraikinean)

-Irailak 21, osteguna, ALEJANDRO CALONJE, 19:00etan
Auzoko parkean

-Irailak 22, ostirala, SORABILLA-BORDA BERRI, 19:00etan
Frontoian (eguraldi txarrarekin Sorabillako auzo elkartean)

-Irailak 25, astelehena, KARRIKA-ETXEBERRIETA, 19:00etan
Karrikako frontoian (eguraldi txarrarekin Karrika elkartean)

-Irailak 27, asteazkena, GOIKO ZONALDEA, 19:00etan
Goikoplazan (eguraldi txarrarekin *Udaletxeko Kontsejupean*)

Agintaldiaren bigarren erdian sartuta gauden honetan, herritar guztiak animatu nahi ditugu bilera hauetan parte har dezaten. Informazioa helarazi ez ezik, behar beharrezkoa ikusten dugu euren iritzi, eskaera eta beharrak ezagutzea, horiek aztertu eta garatzeko aukerak zabaltzen direlako.

Andoainen, 2017ko irailaren 5ean

